



## EBAZPENA, 2015KO URTARRILAREN 26KOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, EUSKARA-IKASTAROAK 2014/2015 (DEIALDI OSAGARRIA) EGITEKO ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA

Justizia Administrazioako langileen euskarazko hizkuntza-gaikuntza sustatu eta bultzatzeko asmoz, Justizia Administrazioako Zuzendaritzak 2014/2015 ikasturterako deialdi osagarria egin du.

Ebazpen honen bidez, **deialdi osagarriko euskara-ikastaroak egiteko onartutako en eta baztertutako en zerrenda** onartzen da (ikusi gehigarria).

Egindako deialdia betez, oro har organo judizial bereko plantillaren %30ak baino ez du lanorduetan 2 orduko ikastaroetara joaterik izango; berdin 5 orduko ikastaroetarako ere. Horretarako kontuan hartuko dira urrian hasi zirenak, modulu-aldaketaren ondorioz hasiko direnak eta deialdi osagarrian ezarritako baldintzak bete dituzten partaide berriak. %30 hori neurtzeko, kokaleku desberdinetan dauden eta bereizitutako zerbitzuak ematen dituzten organo-unitateetan, ehunekoa unitate txiki horietako bakoitzean ezarriko da.

Deialdian ezarritakoa betetzeko asmoz, hona hemen Zuzendaritza honek zerrendak egiteko jarraitutako lehentasun- eta baztertze-irizpideak, kode bidez laburturik eta kontuan hartutako ordenean:

| Kodea | Irizpidea  |
|-------|--|
| 1     | Karrerako funtzionarioa ez izatea.   |
| 2     | Bere organo judizialeko plantillaren %30a jadanik eskoletara joatea.   |
| 3     | Deialdi osagarrian eskaera berriak onartzeko ezarritako baldintzak ez betetzea.  |
| 4     | Kidegoari esleitutako hizkuntza-eskakizuna edo baliokide den maila gauditua izatea. (5 ordu)                               |
| 5     | Aurreko ikasturtean euskara-ikastarorik egin ez izana. (5 ordu)  |
| 6     | Eskatzen den gutxieneko euskara-maila ez izatea. (5 ordu)  |
| 7     | Beste ikastaro mota bat egiteko ezintasuna ez egiaztatzea. (autoikaskuntza)  |
| 8     | Aurreko ikasturtean / 1. lauhilekoan aprobetxamendua bete ez izana (asistentzia / urratsa). Ikaslearen ikasketa-ibilbidea. |
| 9     | Justizia Administrazioan momentu honetan lan ez egitea.  |
| 10    | Ebazpena argitaratu aurretik eskatzaileak berak eskatutako ikastaroari uko egin izana.                                     |
| 11    | 2013/2014 ikasturteko deialdi orokorrean ikastaroari uko egin izana behar bezala arrazoitu gabe.                           |
| 12    | Mailaketa-proba egiteko zain / ebaluaketa-probaren emaitza jakiteko zain egotea.   |
| 13    | Mailaketa-proba ez egitea eta ez justifikatzea.  |
| 14    | Eskatutako modulua deialdiaren eskaintzarekin bat ez etortzea.   |
| 15    | Euskaltegia eta lantokia urrun egotea (20 minutu baino gehiago).   |
| 16    | Zerbitzu-betebeharrak egotea.  |
| 17    | Eskaera epez kanpo aurkeztu izana.   |
| 18    | Bulego Judizial Berrian hizkuntzagatik bereizitutako dotazioa hautatu ez izana, aukera izan arren.                         |



Interesdunek ebazpen honen kontra **gora jotzeko errekurtoa** aurkez dezakete Justizia sailburuorde andreaki zuzendua. Horretarako **hilabeteko epea** izango dute, **ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita otsailaren 26ra bitartean (biak barne).**

Dagozkion ondorioetarako jakinarazten da.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko urtarrilaren 26an

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large, stylized 'U' followed by 'au' and a long horizontal line extending to the right.

**Jon Arturo Uriarte Unzalu**  
**JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA**